

(E-reader) Liburu elektronikoaren irakurgailuen mailegu zerbitzuaren arauak

1. Erabiltzaileak

Santurtziko Udal Liburutegi Sarearen bazkide txartela duten pertsonak dira liburu elektronikoaren irakurgailuen mailegu zerbitzuaren erabiltzaileak.

2. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

2.a. Material honen mailegu zerbitzua izan ahal izateko, erabiltzaileak baldintzak onartu behar ditu eta liburutegiaren mailegu mahaian emango zaion liburu elektronikoaren irakurgailuen mailegu inprimakia sinatu behar du.

2.b. Erabiltzaileak liburu digitalen irakurgailuen mailegurako eskubidea du, mailegurako baldintzak urratzeagatik zigortuta ez badago.

2.c. Liburu elektronikoaren irakurgailua, beti, mailegua burutu den liburutegiko mailegu mahai berean hartu eta jaso behar da.

2.d. Irakurgailua ezin da mailegu mahaian utzi, itzulketa burutzeko liburutegiko mailegu zerbitzuko langileek sorta azteztu behar dutelako. Mailegua egitean erabiltzaileari aurrekoa jakinarazi behar zaio.

2.e. Liburu elektronikoaren irakurgailuen mailegua unean uneko gailuen eskuragarritasunak mugatzen du.

2.f. Liburu elektronikoaren irakurgailuen liburutegiko mailegu zerbitzuko langileek emango dute eta tresneria ondo erabiltzeko azalpenak emango dituzte

2.g. Liburu digitalen irakurgailua erabiltzaileari ematean, erabilera erraztuko duten jarraibideak dituen laguntza azkarreko gida ere emango zaio.

2.h. Irakurgailua ematean bateria beteta izango du eta sorta batekin batera joango da
Sortaren edukia:

- o POPYRE 630 liburu elektronikoaren irakurgailu zorroduna
- o Erabilera gida
- o USB kablea

3. Maileguaren baldintzak

3.1. Liburu elektronikoaren irakurgailuen mailegua norbearena eta besterenezina da eta etxerako mailegu eran egiten da liburutegian bertan. Baimendutako pertsonak ezin du liburu elektronikoaren irakurgailuen mailegua egin. Txartela bakoitzeko liburu elektronikoaren irakurgailu bakarra hartu ahal izango da maileguan.

3.2. Maileguaren iraupena 21 egunekoa izango da. Itzultzeko data atzeratuz gero, mailegu zerbitzua erabiltzeko eskubidea eten egingo da, atzeratu den egun bakoitzetik egun batez.

3.3. Liburu digitalen irakurgailua etengabe izango da erabiltzailearen zaintzapean, berau baita irakurgailu eta osagarrien kontserbatze eta erabilera onaren erantzulea maileguaren epea. Irakurgailua hartu zen baldintza beretan bueltatu behar da.

1.4. Erabiltzaileak gailuan dauden hardwarea eta softwarea ezin izango ditu manipulatu..

1.5. Erabiltzaileak liburu elektronikoaren funtzionamenduan, hala hardwarea nola softwarean,

nolabaiteko akats edo arazorik antzematekotan, berehala jakinarazi beharko die liburutegiko langileei.

3.6. Galtzekotan edo erabilera okerragatik hondatzekotan, erabiltzaileak hartuko ditu gastuak bere gain eta, arau-haustea zein den, zerbitzu honetatik at gera daiteke denboraldi beterako edo behin betiko.

3.7. Erabiltzaileak Jabetza Intelektualaren arloan indarrean dagoen legeria uneoro errespetatzeko eta irakurgailua egoki erabiltzeko konpromisoa hartzen du.

3.8. Liburu elektronikoen irakurgailuen mailegu zerbitzuko erabiltzaileak SUKSren mailegu zerbitzuaren baldintzak eta betebeharrak errespetatu behar ditu. Eginbideak ez betetzeak, larritasuna zein den, hurrengo neurriren bat artesa ekarriko du:

- egindako haustearen jakinarazpena
- mailegu zerbitzua erabiltzeko eskubiderik gabe uztea
- SULSren bazkide izateko eskubiderik gabe uztea behin betiko edo denboraldi batez